

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

MAILEGUAK ETA KALKOAK

TERMINOLOGIA-LANEAN



2004ko apirilaren 22a



SARRERA

Terminoak sortzeko hizkuntzek mendetan zehar erabili izan duten ohiko baliabideetako bat dira maileguak eta kalkoak. Hizkuntzen arteko hartu-emanek sorrarazten dute baliabide horien beharra. Baliabide aberasgarria izanik, hizkuntzek zuhurtziaz jokatu behar dute maileguak eta kalkoak hartzeko orduan. Izan ere, arriskuak ekar ditzake hizkuntza batek mailegu edo kalko gehiegi hartzeak, hain zuzen ere, hizkuntzaren nortasuna gesaltzea.

Hori horrela, oso beharrezkoa da irizpide zehatzak lantzea eta finkatzea jakiteko noiz eta nola hartu behar diren maileguak eta kalkoak. Euskaltzaindiak 1986an hainbat arau eman zituen horren gainean (*Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*); horretaz gain, Hiztegi Batuaren 2. itzulirako ere irizpide zehatzak landu ditu eta horiek guztiak egongo dira terminologian aplikatuko diren irizpideen oinarrian.

Beste hizkuntzetako terminoen sarrera masiboa.

Gaur egungo bizitzan, era guztietako berrikuntzak izugarriko azkartasunez hedatzen eta barreiatzen dira munduan zehar. Berrikuntza horietako gehienak, seguruenik, zientzia eta teknologietako eremuetan gertatzen dira, baina, hala ere, ez da ahaztu behar nolabait hurbilago dauzkagun beste edozein jarduera-eremutan ere erruz sortzen direla (kulturan, gastronomian, modan, eta abar).

Eta, jakina, terminoak berak ere berrikuntza horiekin batera barreiatzen dira. Horregatik, kanpotiko hizkuntzetatik, ingelesetik bereziki, datozen termino ugari jasotzen ditugu etengabe.

Esan bezala, berrikuntza horiek oso azkar barneratzen dira gure eguneroko lan-jardueran eta bizitzan, eta, azkartasun hori dela-eta, sarritan ez da atzerriko termino horien aurrean behar bezala erreakzionatzeko gaitasunik izaten.

Atzerriko terminoa denez kontzeptua izendatzeko barneratzen eta erabiltzen dugun lehena, erosoagoa gertatzen zaigu hura besterik gabe onartzea. Bestalde, atzerriko hitz edo terminoak erabiltzeak halako "kategoria" edo goi-maila ematen duela uste dezakete zenbaitek, eta, horren ondorioz, beharrezkoak ez diren maileguak erabiliko dituzte agian. Horregatik guztiagatik, beste hizkuntzetako terminoak gogoeta handirik egin gabe hartzeko arriskua dago, jatorrizko hizkuntzaren eredueiitsu-itsuan jarraituz.

Maileguak beharrezkoak eta garrantzizkoak dira espezialitate-hizkuntzetan.

Aurreko puntuan azaldutakoa kontuan izanda ere, maileguak eta kalkoak ezin dira besterik gabe edo sistematikoki baztertu. Terminoak sortzeko ohiko baliabideetako bat eratzen dute; are gehiago, hizkuntza bateko lexikoaren osagai saihestezinak direla ere esan daiteke.

Bereziki, oso garrantzizkoak dira jakintza-eremu askotako terminologia espezifikoaren sorkuntzan, betidanik erabili izan baitira baliabide horiek espezialitate-hizkuntzak sortzeko, neologismoarekin eta aldaketa semantikoarekin batera.

Bestalde, terminologia ez da arazo linguistiko hutsa; izan ere, jakintza-eremu askotan garrantzi berezia du nazioartekotasunak. Horrela, arlo zientifiko-tekniko batzuetako terminologian nolabaiteko izaera konbentzionala errespetatu beharra dago.

Maileguak hartzeko irizpideen beharra.

Terminologia-lanean maileguak erabiltzea zilegi bada ere, gutxieneko kontrol edo gogoeta bat egin behar da, hizkuntzaren benetako beharrei erantzuten zaiola bermatzeko. Hori dela eta, funtsezkoa izango da maileguak hartzeko irizpide batzuk ezartzea.

Irizpide horiek ez dira arau bezala interpretatuko, mailegu edo kalko bakoitza aztertu eta eztabaidatzean jarraitu beharreko ildo nagusi gisa baizik. Hizkuntzak ez du sistematikoki betetzen den erregularitasunik gordetzen, eta, horregatik, mailegatutako unitate bakoitza era berezian aztertu beharko da. Horrela, irizpide guztiek osatzen duten ildo nagusi hori eskura izanik hartuko da erabakia.

Mailegu-politikaren printzipio orokorrak.

Kasu guztietan printzipio guztiak zeharo betetzerik izango ez bada ere, komeni da halako jarraibide nagusi batzuk zehaztea, irizpideek nondik nora joan behar duten argitzeko:

- Arauak eman behar dira erabaki ahal izateko noiz onartu edo noiz baztertu mailegu bat, baina, aldi berean, mailegua ordeztuko proposamenak egin behar dira, hizkuntzaren autonomia sustatze aldera.
- Mailegua eta kalkoa erabili beharko lirатеke bakar-bakarrik euskaraz maila bereko izendapen sinonimorik ez duten errealitateak izendatzeko.
- Mailegu-politika era desberdinetan aplikatu daiteke hizkuntza estandarrean eta teknolektoetan.
- Mailegua eta kalkoa errealitate berriak izendatzeko baliabideak dira; dena den, kontuan hartzekoa da hizkuntzak badiuela bestelako baliabideak (eratorpena, hitz-elkarketa, zabalkuntza semantikoa, eta abar).
- Mailegua ahalik eta modurik errazenean txertatu behar da hizkuntzaren egitura morfologikoan, sintaktikoan eta fonologikoan; gainera, emankorra izan behar du, hau da, eratorpenerako eta elkarketarako bidea eman behar du.
- Mailegu bat edo kalko bat onartzeko edo arbuiatzeko, berau osatzen duten hitzak edo elementuak hartuko dira aintzakotzat. Printzipioz, mailegu sintaktikoak edo fonetikoak baztertu egin beharko lirатеke.
- Mailegu bat onartzeko edo baztertzeko, kontuan izan behar dira hizkuntzaren morrontzak (Zuzenbide arloa, esaterako), hizkuntza-komunitatearen ezaugarri soziolinguistikoak eta nazioarteko komunikazio-beharrak.
- Mailegu bat edo kalko bat onartzeko edo arbuiatzeko, hizkuntza arruntaren erabilerari erreparatu behar zaio, hau da, ikusi behar da mailegu edo kalko hori zein neurritan dagoen zabaldurik eta, ondorioz, hizkuntzan txertaturik dagoen eta noiztik.



1. MAILEGUAK ONARTZEKO IRIZPIDEAK

Hasteko, esan behar da maileguak onartzeko irizpideek koherenteak izan behar dutela lexiko arruntaren batasunerako ezarri direnekin. Beraz, lehen aipatutako irizpide linguistikoak kontuan izango ditugu maileguen kasuan ere.

Maileguen arloan, **gutxieneko baldintza** bat ezarri zuen Euskaltzaindiak *Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz* gomendioan. Gutxieneko baldintza horren arabera, ezin dira maileguan hartu Iparraldeko euskaldunek gaztelania jakin gabe ezin uler ditzaketen gaztelaniazko hitzak, ezta Hegoaldeko euskaldunek frantsesa jakin gabe ulertzen ez dituzten frantseseko hitzak ere. Ideia nagusi horretan oinarrituko dira maileguak onartzeko lehenengo bi irizpideak. Horrela, onartzeko moduko maileguak izango dira:

1.1. Euskaltzaindiak ezarritako gutxieneko baldintza betetzen dutenak, eta erabilera zabala izan dutenak.

- Beraz, onartzekoak dira, adibidez, *abioi*, *paralítico* eta *bolumen* modukoak.

1.2. Euskaltzaindiak ezarritako gutxieneko baldintza betetzen ez duten arren, bi kasu hauetako bat gertatzen bada:

1.2.1. Lehian dauden bi mailegu-formetako bat formarik nazioartekoena da.

- *krokodilo* vs. *kokodrilo*

Zoologia	Kirola	Hizkuntzalaritza
eu <i>krokodilo</i>	eu <i>gimnastika</i>	eu <i>hieroglifiko</i>
es <i>cocodrilo</i>	es <i>gimnasia</i>	es <i>jeroglífico</i>
fr <i>crocodile</i>	fr <i>gymnastique</i>	fr <i>hiéroglyphe</i>
en <i>crocodile</i>	en <i>gymnastics</i>	en <i>hieroglyphic</i>

1.2.2. Euskal Herri osorako forma baturik ezin ezar daitekeenean, erabiltzen diren bi maileguak onartuko dira, bat Hegoalderako eta bestea Iparralderako.

- *ezantza* (Iparralderako), *gasolina* (Hegoalderako)
- *kaserna* (Iparralderako), *kuartel* (Hegoalderako)
- *trikota* (Iparralderako), *jertse* (Hegoalderako)

1.3. Hizkuntzaren hutsuneren bat betetzen duten maileguak, euskaratik sortutako neologismo baten bidez ordeztarik ez dagoenean.

- *demoskopia*, *estatistika*, *judizial*.

1.4. Hizkuntzaren sistema ortografikoan eta fonetikoan erraz egokitzen diren maileguak, sistemara egokituta lexikografia orokorrean finkatu berri direnak edo finkatzeaz daudenak.

- *diskete*, *brikolaje*.

1.5. Latinezko edo grezierazko elementuez eratutako maileguak, nazioartekoak badira. Gehienak euskararen sistema ortografiko eta fonologikoetara egokitu ohi dira.

Fisika	Biokimika	Medikuntza
eu <i>krioskopia</i>	eu <i>fotosintesi</i>	eu <i>otorrea</i>
es <i>crioscopia</i>	es <i>fotosíntesis</i>	es <i>otorrea</i>
fr <i>cryoscopie</i>	fr <i>photosynthèse</i>	fr <i>otorrhée</i>
en <i>cryoscopy</i>	en <i>photosynthesis</i>	en <i>otorrhoea</i>



Beste batzuk, berriz, egokitu gabe integratu izan dira hizkuntzan:

Hizkuntzalaritza	Hezkuntza	Ekonomia
eu <i>corpus</i>	eu <i>curriculum</i>	eu <i>ratio</i>
es <i>corpus</i>	es <i>curriculum</i>	es <i>ratio</i>
fr <i>corpus</i>	fr <i>curriculum</i>	fr <i>ratio</i>
en <i>corpus</i>	en <i>curriculum</i>	en <i>ratio</i>

1.6. Bakarka hartutako maileguak, hau da, mailegatutako hizkuntzan eratorririk ez dutenak, horrek ez baitakar eremu semantikoa aldarazteko arriskurik.

- *master, blazer, best-seller.*

1.7. Hizkuntza arruntean txertaturik dauden maileguak eta emankorrak izan direnak, hau da, eratorriak edo esanahi desberdinak sortu dituztenak.

- *telefono, telefoniko, telefonozain, telefonia.*
- *klima, klimatiko, bioklima.*

1.8. Espezialitateko hizkuntzetan txertaturik dauden maileguak eta eratorriak eman dituztenak.

- Geologian
karst, karstiko, karstifikazio
dolina, dolinizazio
podzol, podzoliko, podzolitazio

1.9. Espezialitate-eremu baten barruan polisemia ezabatzea helburu duten maileguak.

- Medikuntzan, adibidez, *obesitate* onartzekoa da, *gizentasun* hitz orokorraren ondoan —pisu gehiegi izateak besterik gabe definitzen du termino hori— bereizi beharreko beste kontzeptu bat izendatzen duelako. Bestela *gizentasun* hitza anbiguo bihurtuko litzateke bi esanahiak metatuz.

Medikuntza

eu *obesitate*

def. Gantz-ehunaren gehiegizko pilaketa gutxi-asko hedatsua, pisu normalaren % 25eko gehikuntza dakarrena gutxienez.

es *obesidad*

fr *obésité*

en *obesity*

Onartutako maileguak nola idatzi.

- Mailegua onartzen den kasuetan, hizkuntzan nola txertatu behar den da kontua, hau da, grafia egokituta edo egokitu gabe.

Esan liteke zenbat eta sartuago egon mailegua hizkuntzan, zenbat eta arruntagoa izan, orduan eta errazagoa dela hizkuntzaren grafiara egokitzea. Horrela, *mitin* (ez *meeting*) arautu du Euskaltzaindiak; baina, aldi berean, *ranking* bakarrik utzi du. Eta, beste batzuetan, bi formak onartu dira: *esmokin/smoking* eta *kanpin/camping* adibidez. Beraz, mailegu bakoitzaren kasua banaka aztertu beharko da. Egokitzea erabakitzen bada, aurretik esan bezala, *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* jarraituko dira egokitzapena egiteko.

- Kasu-markak ezartzean marra jarri behar den edo ez zehazten duen irizpide zehatzik ez dago.

Jakina, grafia egokituta dagoenean ez dago marraren beharrik: *marketina, marketinaren*.



Grafia egokituta ez dagoenean, aurreko puntuan esan bezala, mailegu bakoitza banaka aztertu beharko da. Oso erabiliak direnak eta erraz identifikatzen ditugunak marrarik gabe idatzi ohi dira: *softwarea*, *softwarearen*. Aldiz, teknikoagoak direlako-edo, hain erraz identifikatzen ez direnak, marraz idatziko dira: *blitzkrieg-a*, *blitzkrieg-aren*.

Onartutako maileguak nola ahoskatu.

- Zenbaitetan, nola ahoskatu ere finkatu beharko da, bereziki grafia bati ahoskera bat baino gehiago legozkiokeenean (“x” edo “g/j”, esaterako) edo idazkera eta ahoskera nahiko desberdinak direnean (ingelesetik zuzenean hartutako hainbat kasutan gertatzen den moduan).

2. MAILEGUAK BAZTERTZEKO IRIZPIDEAK

Baztertzeo maileguak izango dira:

2.1. Euskarazko baliokide egokia dutenak.

- Hizkuntzalaritzan

*Demonstratibo** vs. *erakusle*

2.2. Euskaltzaindiak ezarritako gutxieneko baldintza betetzen ez dutenak, hau da, Iparraldeko euskaldunek gaztelania jakin gabe ezin uler ditzaketen gaztelaniazko hitzak edo Hegoaldeko euskaldunek frantsesa jakin gabe ulertzen ez dituzten frantseseko hitzak.

2.2.1. Iparraldearen eta Hegoaldearen artean batasuna egiteko forma egokiagoa duelako ondoan.

- *e jertzito** vs. *armada*
- Latinezko edo grezierazko elementuez eratutako maileguak ere, nazioartekoak ez badira, baztertu egingo dira. Gaztelaniatik *kirofano** baztertu egingo da, nazioartekoa ez denez ezezaguna baita Iparraldean.

Medikuntza

eu *operazio-gela; ebakuntza-gela*

es *quirófano*

fr *salle d'opération*

en *operating room*

2.2.2. Lehian dauden bi mailegu-formen artean, bestea denean forma nazioartekoagoa.

*laberinto** baztertu egingo da, *labirinto* nazioartekoagoa hobetsiz.

eu *labirinto*

es *laberinto*

fr *labyrinthe*

en *labyrinth*

2.3. Integrazio ortografiko zaila duten maileguak, bai eta homografoak eta homofonoak sor ditzaketenak.



- *play-off** terminoa (*kanporaketa* hitzarekin erraz ordezkara daitekeena, gainera) nahiko traketsa gerta daiteke kasu-markak hartzen dituenetan. Izan ere, marra bikoiztea ekar baitezake (eta, marrarik gabe, nahasgarri izan daiteke): *play-off-arekin*, *play-offarekin*.

Horrelako maileguak hartu behar izatekotan, *plug-in* kasurako, idazkera errazte aldera, marrarik gabe idatziko dira eta, horrela, euskararen flexioa erraz adieraziko da: *plugin-a*.

2.4. Mailegu berriak, euskarazko neologismoek erraz ordezkara ditzaketenak.

- *training** terminoa alferrikakoa da, prestakuntzaren arloan *trebakuntza* terminoa erabil baitezakegu, eta kirolaren arloan, *entrenamendu* edo *entrenatze*.

2.5. Atzetik kanpoko forma gehiago dakarten maileguak, eta, ondorioz, eremu semantikoko lexiko-sorkuntza eragozten dutenak.

- *stage** (ikastaroa) mailegua onartuz gero, agian *stagiaire** (ikastaroa egiten duena) modukoak ere etorriko liriteke atzetik, eta horrek egokitze-arazoak sortuko lituzke.

3. INOLAKO ESKU-HARTZERIK BEHAR EZ DUTEN MAILEGUAK

Hainbat mailegu bereziren kasuan, ez da beharrezkoa izaten ez aldeko ez kontrako esku-hartzerik. Ezaugarri hauetako bat duten maileguak izango dira:

3.1. Atzerriko beste kultura bateko errealitatea izendatzen duten maileguak.

- hara-kiri, ramadan, trattoria, befeater.

3.2. Euskara arruntean txertatutako maileguak, argitaratutako hiztegi gehienetan agertzen direnak.

- Robot, radar, master

3.3. Pasatzen diren modek ekarritako maileguak.

- *beat, yuppie, break dance*, tamagotchi



4. KALKOAK

Hizkuntza batek beste hizkuntza bateko hitza edo esamoldea itzuliz sortzen duen unitate linguistikoa da kalkoa. Kalkoak onartzeko edo baztertzeak maileguen kasuan aipatu ditugun bertsuak izango dira; eta arreta berezia eskaini beharko zaio nazioartekotasunari. Hala ere, badira bereziki kalkoentzat diren irizpide batzuk:

4.1. Kalkoak onartzeko irizpideak

Onartzeko kalkoak izango dira:

4.1.1. Hizkuntzan txertatuta dauden kalkoak, obra lexikografiko arruntetan ere biltzen direnak.

- *izar* (zinema arloan)

4.1.2. Euskararen sistema gramatikalaren arabera konbinatutako elementuez osatutako kalkoak, nazioartekotasunaren bermea dutenak.

Informatika

eu *disco gogor*

es *disco duro*

fr *disque dur*

en *hard disk*

eu *posta elektronikoa*

es *correo electrónico*

fr *courrier électronique*

en *electronic mail*

4.2. Kalkoak baztertzeak irizpideak

Baztertzeak kalkoak izango dira:

4.2.1. Euskararen sistema gramatika urratzen duen elementu-konbinazioz eratutako kalkoak.

- *motor fueraborda* kalko gisa hartu nahi izanez gero, *motor karel-kanpo** ez da onartzekoa. Sistemaren arabera eratutako *karel(ez) kanpoko motor* hobetsiko da.

4.2.2. Distortsio semantikoak sortzen dituzten kalkoak.

- Txirrindularitzan, txirrindulariek eraten duten hurrenkera jakin baten zuzeneko kalkoa *haizemalle** izango litzateke (**es** *abanico*, **fr** *éventail*). Nahiko nahasgarria gertatuko litzateke hori, ordea; haizea ematea ez, baizik eta haizeaz babestea baitu helburu, hain justu, txirrindulari-hurrenkera horrek. Horregatik, *haize-babes* hobetsi da, kalkoa bazterturik.
- Era berean, hizkuntza bakoitzak bere unibertso semantikoa du, eta hori kontuan izan behar da kalkoak hartzerakoan. Horrela, *birjina* kalkoa erabiltzea egokia izan daiteke *oihan birjina* moduko terminoak osatzeko; aldiz, beste kasu batzuetan, badira kalkoa saihesteko moduko forma egokiagoak: *erabili gabeko zinta* edo *zinta erabiligabe* (eta ez *zinta birjina**).